

Ordizian, 2014ko maiatzaren 29an UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M <sup>a</sup> .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ taldea
Judith Otegi López de Murillas	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

Beste BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1.- 2014(e)ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

2.-Udal talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Euskadiko eraikinetan ikuskaritza teknikoaren derrigortasunari buruzkoa.

3.- BILDU taldeak aurkeztutako mozioa Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan lehiatu ahal izateari buruzkoa.

4.- Moción que presenta el Grupo Socialista de Ordizia con motivo de la celebración del día internacional contra la homofobia y transfobia.

5.- 2015 urterako Ordiziako udal herriko jai egun ofiziala izendatzea

6.- Mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko Hitzarmena onartzea

7.- Dirulaguntza ematea SAADA Goierriko Sahararen lagunak elkarteari "oporrak bakean" programan parte hartzeagatik.

8.- Goierriko Ekimena S.A.ren 2013. Ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabaz eta galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion proposamena aztertu eta onartu/

9- Jakintza ikastolak, aurkeztutako obra zergetan hobari eskaera hauek

- Jangela irekitzeko obrak
- Liburutegia zaharberritu eta Fab-Lan gela sortzeko obrak

10.- Kreditu transferentzien 5. espedientea onartzea

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:10etan

AMAIERA:19:45 etan



Batzordeburuak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez.

## 1.- 2014ko maiatzaren 8an egindako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

### Proposamena

2014ko maiatzaren 8an egindako Plenoaren akta onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

## 2.-Udal talde sozialistak aurkeztutako mozioa, Euskadiko eraikinetan ikuskaritza teknikoaren derrigortasunari buruzkoa.

ORDIZIAKO UDALEKO TALDE SOZIALISTAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKO EGITERA BEHARTUTA DAUDELA-ETA AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA

Oinarriak:

2012ko abenduaren 15ean indarrean sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoan Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egitera behartzen duen dekretua, Eusko Jaurlaritzak emana (241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, *Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen tekniko arautzen duena*). 2016ra bitartean, 50 urtetik gorako eraikin guztiek pasa beharko lukete, modu mailakatuan, aipatu azterketa.

Halaber, eta 2013ko azaroaren 19az geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoan Eraikinak Ebaluatzeko Txostena ere gehitu zen (8/2013 Legea, *ekainaren 26koa, birgaitzeari eta hiri- berronetzeari eta – berrikuntzari buruzkoa*).

Nolanahi ere, afera horien inguruan orain arte konstituzio-kontrakotasuneko gatazka bat zegoen, Eusko Jaurlaritzak aurkeztua; azken honen iritziz, eraikina zaharberritzeari buruzko Estatuko legeak Jaurlaritzak hirigintzaren, lurraldearen antolamenduaren eta etxebizitzaren arloetan dituen eskumenak urratzen zituen. Hortaz, Hiri-birgaitzeari buruzko Estatu Legea interpretatzeko moduz nolabaiteko adostasunik eza dago Estatuko gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Testuak zalantzak piztu zituen; alegia, zein administrazioek, eta zein irizpidez, ikuskatu behar zituen berrogeita hamar urtetik gorako eraikinak.

Elkarrizketa eta negoziazio epe baten ondoren, Madrilék eta Gasteizék interpretazioan adostasuna lortu dute Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT, autonomia-erkidegoko Administrazioak sortutako tramitea), Eraikina Ebaluatzeko Estatuko Txostenaren eginkizuna bete dezan, antzeko berrikuspena, baina Estatuko Administrazioak ezarritakoa.

Antza, une honetan bi administrazioek legezko testuaren irakurketa bateratua adostu dute, eta horrek euskal EIT Estatuko ebaluazio-txostenak ez ordezkatzeari ahalbidetuko du. Azkenik, bi horietatik lehena izango da Euskal Autonomia Erkidegoan exijitu ahal izango den tramite bakarra.

Horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko dekretua (*241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen tekniko arautzen duena*) seguru aski datorren hilean aldatuko badute ere, hasiera batean, *eraikinak birgaitzeko Estatuko legea* argitara eman zenean (2013ko ekainaren 27a) berrogeita hamar urte beteak zituzten eraikinek bost urteko epea edukiko dute ikuskatuak izateko. Aitzitik, mende-erdia aipatu data horren eta 2018. urtearen tartean beteko duten eraikinek egutegi mailakatua edukiko dute, tarte gutxiagorekin. Eta mende-erdia 2018. urtetik aurrera beteko dutenek, berriz, urtebetea izango dute soilik EIT lortzeko.

Azkenik, bi administrazioen iritziz, gai honetan garrantzitsuena (bai jabeentzat, bai teknikarientzat eta gremioentzat) eraikin zaharrak ikuskatzearen helburu praktikoak dira, nork ikuskatuko dituen, aldiz, bigarren mailakoa.

Bestalde, gaur egun, gizartean, une honetan daukagun eraikin-parkea eta eremu kontsolidatuak birgaitzearen, berritzearen eta berronetzearen aldeko hirigintza-kultura bultzatu behar diren inguruan adostasun zabala dago, planta berriko eraikinen hiri-hazkunde eta -zabalkuntzaren kaltetan. Eraikin-parke horrek, azken azterketek erreparatuta, hainbat gabezia ditu; halaxe antzeman ditugu gure udalerrietan azken urteotan, bereziki irisgarritasunari dagokionean.

Era berean, aintzat hartu behar dugu, are gehiago une hauetan bizi ditugun ekonomia- eta enplegu-egoerak kontuan hartuta, eraikinak birgaitzeak berebiziko garrantzia duela mikroenpresentzat eta tokian tokiko enpresentzat, hurbiltasuneko enplegu-sortzailea den aldetik. Bestalde, ekonomia produktiboaren gaineko pizgarri-efektu biderkatzailea dauka.

Eraikinak zaintzea sustatzeak eta eraikinak segurtasun-egoera onean edukitzeak, eragimen energetikoa eta irisgarritasuna hobetzeak urtez urte eta legealdiz legealdi arduratu gaitu Ordiziako talde sozialistako kideok, eta bereziki irisgarritasunari dagokionez, kezka hori gobernu-akordioetara eta udalaren aurrekontura eramaten ahalegindu gara.

Gure udalerriko etxebizitzaren eta eraikinen eragimen energetikoa areagotzeko, horien irisgarritasuna hobetzeko, enplegua sortzea bultzatzeko, eta legeak udalei ematen dizkien eskumenak eta betebeharrak garatzeko, Ordiziako Udaleko talde sozialistak honako PROPOSAMENA egiten du EITren inguruan:

1.- Udalak arlo horretan dituen betebeharrak (arauaren eta EITren arloan lortutako akordioaren analisia) aztertuko dituen, eta udal-plangintzako aholku-batzordeari jardueraren txosten/proposamena aurkeztuko dion lantalde tekniko/politiko bat eratzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn.

Akats bat dagoela esan du, duela 15 egun aurkeztu zuen proposamen bat moztio gisa sartu delako, eta moztioa bera 15 egun beranduago aurkeztu delako. Adierazi du ez duela aparteko garrantzirik, proposamena antzekoa delako; nahiz eta moztioan, lan-taldearen eraketaz gain arretarako bulego bat sortzeko aukera aztertzeko eskaera egiten zen, adosten den guztia garatzeko, eta proiektua martxan jartzeak ekar dezakeen gastuari aurre egiteko diru-laguntza programa bat aztertzen hasteko.

#### Alkate jn.

Hirigintza Batzordea gaiaren jarraipen lana burutzen ari dela azaldu du, eta eraikuntza urteko etxebizitzaren errolda egiteko pertsona bat kontratatu zela jakinarazi du. Orain arte 3 edo 4 EIT(Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa) aurkeztu direla esan du, azterketaren gastua 1.500,00 eurokoa dela, eta horretarako badagoela diru-laguntza programa bat, izaera tekniko eta politikoa izango duen lan-talde bat osatzeko eragozpenik ez dutela; eta bere ustez lehenengo etxebizitzaren errolda aztertu behar dela interesdunei lor ditzaketan diru-laguntzei buruzko informazio guztia emateko eta abar. Ez zela jabetu alde batetik proposamen bat zegoenik eta bestetik moztio bat. Diru-laguntzen gaiari dagokionez, adierazi du, diru-laguntzen atal bat sortzen bada sakonki aztertu beharko dela komunitate pribatuei emango litzaizkiekeelako diru-laguntzak. Amaitzeko, horren alde bozkatuko dutela esan du, baina izaera tekniko eta politikoa izango duen lan-taldea sortzen denean, talde guztiak inplikatzeko eskaera egin du, eta guztiak parte hartzeko eraginkorra eta operatiboa izan dadin EITn inguruko erabakiak hartzeko unean, izan ere, duela gutxi, beste lan-mahai batzuk sortzeko proposamenak egin dira baina azkenean ez dira gauzatu.

#### Dubreuil jn.

Lan-taldea arazoa sortzen den unean eratzea da asmoa, eta ez, arazoa sortu eta hiru urte beranduago eratzea.

#### Alkate jn.

Bai, baina denek lan egiteko izan dadila, eta ez, talde bat gehiago eratu, eta gero beste bat, eta ondoren beraiek bakarrik lan egiteko.

## Santamaria jn.

Adierazi du alkateak esandakoarekin bat datorrela, bidezkoa iruditzen zaiola taldea sortzea politiko eta teknikoez osatuta gaia aztertzeke, eta taldea osatu ondoren aztertu beharko litzatekeela, bere kasuan, diru-laguntzen gaia.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du.

### **3.- BILDU taldeak aurkeztutako mozioa Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan lehiatu ahal izateari buruzkoa.**

#### Proposamena

##### Zioen adierazpena

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C 303/01) (2007/C 303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontuan hartuta:

1. Bereizkeria oro debekatzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.
2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatzen da, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren aplikazio-esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.

Gurean aldiz, nahiz eta gizartearen gehiengoak bat egin, euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiari modu positiboan erantzun beharko liokete, eskura diren bitartekoak erabiliz.

Zentzu honetan, erakunde honen kompetentzia euskal selekzioa baztertzea ekiditea ez bada ere, ekarpen xume bat egin lezake, dagozkien instituzioei, udaletxe eta herri/hiri honen aldarria helarazi eta egungo

bazterketa ezar ez dezaten. Eta bazterketa hau kirol eremu guztietan ematen bada ere, egun mahai gainean dagoen eztabaida kontuan hartuta, alegia futbola eta Eurokopa, honako mozioa aurkezta da.

Hau dela eta, honako mozioa aurkezten da.

Mozioaren testua

ORDIZIAko Udalak , ORDIZIAKO herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:

1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.

2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selekzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Intsausti and.

Adierazi du ez duela testu osoa irakurriko baizik eta mozioaren azken 2 eskaerak.

Santamaria jn.

Adierazi du funtsean ados daudela mozioarekin, baina pare bat aldaketa proposatzen dutela; batetik ez bakarrik futbol federazioa bidaltzea baizik eta nazioarteko kirol federazio guztietara bidaltzea, eta bestetik beraien iritziaren arabera nazioartean ez direla lehiatzen estatuak baizik eta federazioak, eta hori gaur egun nazioarteko arautegiaren aurka ez dago eta horren arabera azkenen Euskal Federazioena da Euskal Selekzioaren ardura.

Alkate jn.

Adierazi du ñabardurekin ados dagoela, baina Euskal federazioaren ardura dela esaten denean galdera bat duela, ea Euskal Federazio Autonomiko edo Euskal Herria Osotasunean onartzen duen Euskal Federazio batetaz hizketan ari garen.

Santamaria jn.

Gaia Igor zein da Euskal Selekzioa?, ni gai hori argitu nahi dut.

### Alkate jn.

Bai noski, baino gu ez gaude Euskal Selektzio Autonomiko baten alde, baizik eta Euskal osoaren Selektzioaren alde.

### Santamaria jn.

Ni hizketan ari naiz Federazioaren kompetentziaz eta horren arabera Euskal Federazioaren kompetentziaz.

### Alkate jn.

Orduan gauza desberdinetaz hizketan ari gara, EAJk defendatzen du Euskal Selektzio autonomikoak jokatu dezala estatuan, eta guk aldiz aldarrikatzen dugu Euskal Selektzioak ofizialki nazioarteko txapelketan gainerako selektzioen baldintza beretan lehiatzea.

### Santamaria jn.

Berretsi du berak esan duela federazioetan dagoela eskumena momentu honetan.

### Alkate jn.

Bai eta herriarengan dago zer izan nahi duen kompetentzia, beste gauza bat da uzten dieten edo ez erabakitzen, eta EAJ esaten duena da federazioetan dagoela kompetentzia, eta federazio arteko lehiak izatea defendatzen du, baina mozio honek ez du hori eskatzen baizik eta Euskal selektzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selektzioen baldintza beretan lehiatzea. Eztabaida honetara iritsita esan du komeni dela mozio osoa irakurtzea gaia argi uzteko. Bukatzeko eta mozio osoa irakurri ondoren esan du ados dagoela EAJ taldeak proposatutako, mozioa ez bakarrik espainiako futbol federaziora bidaltzea baizik eta nazioarteko kirol federazio guztietara bidaltzea .

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 ( PSE-EE (PSOE)1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 4. puntuaren berri eman du.



#### 4.- Ordiziako talde sozialistak aurkeztutako mozioa, homofobiaren eta transfobiaren aurkako naizioarteko egunaren igurukloa

##### Proposamena

Oinarriak

Ordiziako Udaleko PSE-EE (PSOE) talde sozialistak aurten ere bat egin nahi du maiatzaren 17ko oroimen-egunarekin, Homofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunarekin. Homofobia eta Transfobia, hurrenez hurren, orientazio sexualagatik eta genero identitateagatik diskriminatzea edo baztertzea esan nahi du. 2009ko ekainaren 26an Ministro Kontseiluaren akordio bidez aitortu zen, Zapatero Presidentearen gobernu sozialistaren agindupean.

Homobiaren aurkako eguna maiatzaren 17an finkatzea adostu zen 1990 urtean, Osasunaren Nazioarteko Erakundeak homosexualitatea sexu-nahasmenduen zerrendatik kendu zuelako eta sexu aniztasunaren zati gisa definitu zuelako. Nazioarteko egun hau lesbofobiaren eta bifobiaren aurka borrokatzeko eguna ere bada, eta horrekin batera orientazio afektibo eta sexualagatik egiten den bazterketa ororen aurkako eguna.

Azkeneko urteetan aurrerapausuak eman diren arren, gaur egun gorrotatzeko modu zabalduenak dira lesbofobia, transfobia, homofobia eta bifobia. Lesbiana eta Gayen Nazioarteko Erakundearen (ILGA) eta Amnistia Internazionalen txostenen arabera, sexu orientabidea eta genero identitatea legez zigortzen dituzte herrialde askotan. Txosten hauen arabera homosexualitatea jazarpenarako arrazoi da 78 herrialdetan, eta heriotza zigorra ezarrita dago horregatik Saudi Arabian, Iranen, Yemenen, Mauritianian, Sudanen eta Afganistanen, eta duela gutxi Brunei sartu da homosexualei heriotza zigorra ezartzen dieten herrialdeen zerrendan.

Aurtengo maiatzaren 17an Alderdi Sozialistak gogora ekarri nahi du, munduko toki askotan LGTB kolektiboa jazarpen egoeran dagoenez, Espainiako erakundeek, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatu Federazioa (FELGTB) buru dutela, 2014 urtea "munduko LGTB pertsonen eskubideen aitortzari" eskaini nahi diotela.

Human Rights Watch (HRW)en 2014ko mundu mailako txostenak dio diskriminazioak, arrazakeriak eta homofobiak Europar Batasunaren arazo larriena izaten jarraitzen duela. Duela gutxi HRW erakundeak mundu mailako txosten bat argitaratu du (2014an), eta bertan mundu osoko (90 herrialde baino gehiagoko) giza eskubideen praktikei buruzko urteko ebaluazioa egin du.

Europar, Errusiak etengabe bortxatzen ditu lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen (lgtb) giza-eskubideak eta manifestazioak egiteko eta adierazteko eskubideak ere jazartzen ditu. Afrikan berriz, herrialde askotan pertsona homosexualen aurkako eta LGTB pertsonen giza eskubideak defendatzen dituztenen aurkako legediak ugaritzen ari dira, eta bereziki era gogorrean Nigerian, Ugandan eta Kamerunen. Ezjakintasunak, aurreiritziak eta erlijio integrista bultzatu ditu lege hauek, izan ere, herrialde hauetan erlijio integrista gero eta indar handiagoa du.

Barne Arazoetako Ministerioak egin duen *Gorroto Delituen* lehenengo *Txostenean*, jasotzen da, Espainian aurkeztutako salaketa gehienak homobia eta transfobia arrazoiengatik egindako gorroto delituekin lotura dutela, 2013 urtean aurkeztutako 1.172 salaketetatik 452 salaketa dira mota honetakoak. Datu hauek agerikoak izanda, PSOEk hainbat lurralde-parlamentutan lege proposamenak aurkeztu ditu lesbianen,

gayen, transexualen eta bisexualen berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzeko, baina PPre gehiengoak uko egiten dio proposamen hauei, diskriminazioa deuseztuko duen eta diskriminaziozko jarrerak zigortuko dituen legediaren aurkako jarrera itxia eta sendoa agertuz.

Euskadin, Arartekoak 2009an egin zuen *"Adingabekoei balioak transmititzea"* txostenak dio euskal ikasleen %15ek jarrera edo ideia homofoboak dituztela orientazio homosexuala edo identitate transexuala duten haur edo nerabeekiko. Jarrera hauek, adingabe hauen aurkako jazarpena edo erasoak ekar ditzakete. Ekintza hauen ondorioz, ez da bermatzen ume hauen segurtasuna; eta nortasuna era askean garatzeko, berdintasunerako eta duintasunerako duten eskubidea ere ez da bermatzen. Duela gutxi, 2011n, Arartekoak argitaratu duen *"Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak"* txostenean azaltzen zen, Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean jarrera homofoboaren tasa oso altua zela, eta ikasleen %23,2k ziola oso deseroso sentituko litzatekeela bere irakaslea homosexuala izanez gero. Iaz, 2013an, Gehitu eta Errespetuz elkarteek honako txostena bidali zioten Arartekoari: *"Acoso escolar y riesgo de suicidio por orientación sexual e identidad de género: fracaso del sistema educativo"*. Ikerketa honen arabera, bere buruaz beste egiteko arriskua oso handia eta larria da genero identitateagatik edo sexu orientazioagatik erasotu dituzten gazte biktimen artean.

Horregatik guztiagatik, Udal Taldeak ondorengo MOZIOA aurkezten du:

- 1.- Ordiziako Udalak giza eskubideak defendatzeagatik jazarpenak jasan dituzten, espetxeratu dituzten edota erahil dituzten lgtb aktibistak gogora ekarri eta omendu egin nahi ditu; eta mundu osoan homosexualitatea, transexualitatea eta bisexualitatea zigortzeko sistema eteteko eskakizunarekin bat egiten dugu.
- 2.- Ordiziako Udalak egun honekin bat egiten du eta diskriminazio mota guztien aurka lan egiteko eta diskriminazioari aurre egiteko lege-lanabes eta erremintak sendotzeko lanaren alde egiteko beharra aldarrikatzen du.
- 3.- Ordiziako Udalak ordiziar guztiei, orokorrean gizarteari eta eremu desberdinetako botere publikoei (udalerrikoei, Euskal Autonomia Erkidegokoei, Espainiakoei eta Ordiziako sare sozialari) honako deia egiten die: homofobia eta sexu orientazio edo genero identitatean oinarritutako diskriminazioa deusezteko euren jarrera azaltzeko eta horren alde lan egiteko, eta horrela, gizarte demokratiko eta anitz bat eraikitzeko lanean aurrera egin ahal izango da, pertsona guztiak aintzat hartzen dituen bazterketarik gabe, pertsonak dituzten adierazpen eta baldintza guztiekin.
- 4.- Ordiziako Udalak udalerriko elkarte guztiei bidaliko die mozio hau, eta horrekin batera erantzukizunak edo ordezkariak dituzten udal erakundeei eta udalez gaindiko erakundeei ere bidaliko die mozioa, eta testu bat idatzi eta argitaratuko du Udalaren euskarri ofizialetan eta komunikabide pribatuetan zabaltzeko. Horrez gain, mozioa Gipuzkoako Foru Aldundira, Eusko Jaurlaritzara eta Espainiako Gobernura ere bidaliko du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Dubreuil jn.

2012an gai honen inguruko mozio bat onartu zela esan du, eta mozio honekin pausu bat gehiago ematea dela asmoa, eta udalerriko elkarte sareari, eta udal erakundeei deialdi bat egitea, eta akordio zabal bat lortzeagatik prest daudela moziotik "gure estatuan" kentzeko.

### Gutierrez and.

Adierazi du bere taldeak bat egin duela mozioarekin, Dubreuil jaunak esan duen bezala "gure estatuan" erreferentzi hori kenduta.

Aurkeztutako proposamenetik "gure estatuan" erreferentzia ezabatu da.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE(PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 5. puntuaren berri eman du.

### **5.-2015 urterako Ordiziako udal herriko jai egun ofiziala izendatzea**

#### Proposamena

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak apirilaren 15eko 61/2014 Dekretuaren bitartez 2015. Urteko Euskal Autonomia Erkidegoko langileen jaiegunen egutegia onartu eta 2014ko apirilaren 30eko E.H.A.A.n argitaratu da.

Aipaturiko Dekretuaren bigarren artikulua honela esaten du hitzez-hitz:

2.1.- Bi mila eta hamabosgarren urtean, lan ondorioetarako, tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira; hau da, ordaindu egingo dira, eta ez dira errekuperatu beharko. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko lurralde ordezkariak zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako osokoek proposatuta. Lurralde historikoko gainerako udalerriekin batera edo aparte hartu ahalko dira.

2.- Hilabeteko epea izango dute udalek, dekretua argitaratu ondoko egunetik hasita, proposamena egiteko eta dagokien Lurralde Ordezkaritzara bidaltzeko (Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzak).

2 lanegun horietako bat Gipuzkoko osorako: Uztailaren 31, San Inazio eguna izaten da.

Beraz, Udal Osoko Bilkurari dagokio herriko jai eguna izendatzea.

Beraz Administrazio delegazioaren eta langileen ordezkartzaren irizpenak kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2015 urterako Ordiziako udal herriko jai eguna uztailaren 27an izendatzea.

Bigarrena.- Izendatutako jai egunaren jakinarazpena Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Lurralde Ordezkaritzara bidaltzea.

Hirugarena.- Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere Lurralde Historikoetako eta udalerriko egutegi ofizialetan jasotzen diren jaiegunak aintzat hartu, Ordiziako Udaleko Lan egutegia 2015erako finkatu ahal izateko, hau da, urteko lanaldia banatu eta ordutegiak zehazteko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE(PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 6. puntuaren berri eman du.

## 6.- Mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko Hitzarmena onartzea

Puntu hau zerrendatik ateratzea proposatu da.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE(PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Gai-zerrendatik atera da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 7. puntuaren berri eman du.

## 7.- Dirulaguntza ematea SAADA Gohierriko Sahararen lagunak elkarteari "oporrak bakean" programan parte hartzeagatik.

### Proposamena

Gohierriko Sahararen lagunak elkarteak 2014ko udan bi umeren bidai gastuak ordaintzeko diru-laguntza eskaera aurkeztu du.

Ordiziako udaleko garapenerako lankidetzaprograma arautzen duen araudia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012ko abuztuaren 21ean argitaratua, eta araudiko lehenengo kapituluaren arautzen den "Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa" ikusita, "Oporrak bakean" izenarekin ezagutzen dena.

Honako hau proposatu da:

Dirulaguntza ematea SAADA, Gohierriko Sahararen lagunak elkarteari, 'Oporrak bakean' programan parte hartzeagatik, Saharako bi haur Ordiziako bi familien etxeetan hartuz 2014ko udan.

Laguntza 1.630 €koa da, 815 € ume bakoitzeko eta hartutako umeen bidaiaren gastuei dagokio.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Adierazi du aurten ere bi eskaera izan direla, hegaldiaren kostua finantziatzen dela, eta diru-laguntza ez familiei baizik eta elkarteari ematen zaiola.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE(PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 8. puntuaren berri eman du.

### 8.- Goierriko Ekimena S.A.ren 2013 ekitaldirako Memoria, Balantzea eta Irabaz eta Galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion proposamena aztertu eta onartu.

#### Proposamena

GOIEKI SAK aurkeztutako kontu-ikuskaritzako txostenaren berri eman da, 2013ari dagokiona, 2014ko ekainaren 20an egingo den Batzorde Orokorrean aztertu eta onartzeko.

Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordearen aldeko erabakiarekin, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

GOIEKI SARI dagokion 2013. ekitaldiko galera eta irabazien balantze eta memoria onartu

Alkate-Batzordeburuaren aldeko boto berrestea Udal honen ordezkarietan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Santamaria eta Dubreuil jaunak

Puntu honetan Santamaria eta Dubreuil jaunek adierazi dute, ez dutela memoria eta abarri buruzko dokumentazioa jaso, baina ez dutela inongo arazorik eguneko gai zerrendan mantetzeko.

### Idazkariak:

Adierazi du Toki Entitateen Antolakuntza eta Funtzionamendua arautzen duen 2568/1986 erregelamenduak arautzen duen bezala, deialdia egin den momentutik aurrera Udal Osoko Bilkura honekin zerikusia zuen dokumentazio osoa idazkaritzan egon dela zinegotzi guztien dispoziziora.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ 5, PSE-EE(PSOE)1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 9. puntuaren berri eman du.

### **9- Jakintza ikastolak, aurkeztutako obra zergetan hobari eskaera hauek: .-Jangela irekitzeko obrak .-Liburutegia zaharberritu eta Fab-Lan gela sortzeko obrak**

#### Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri eman da. Horrek aurreikusten du interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan % 95eko hobaria ematea, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

Era berean, Ordiziako Ikastola Jakintzaren aipatutako zergaren hobari eskariaren berri ematen da, Jangela irekitzeko obrak eta liburutegia zaharberritu eta Fab-Lan gela sortzeko lanetarako.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikulua arabera, Tokiko Zerga Sistema berritzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak aldatuta, Osoko Bilkurari dagokio hobaria aplikatzeko obren interes edo erabilera publikoa izendatzea.

2012ko maiatzaren 21ko data daraman Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, eskatutako hobariaren aldeko irizpena eman du, Herri Onurako erakundea delako eta hezkuntzarekin lotutako zentroa dela kontuan izanik, eta % 95eko hobaria proposatu du.

AKORDIO PROIEKTUA

Egingo diren obren interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea eta, ondorioz, aipatu obrei Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %95eko hobaria egin dakien onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalak, udal interes edo erabilerakoak izan daitezkeen obretan, eraikuntzetan edo instalazioetan zergen %95 bitarteko hobaria jasotzen duela adierazi du, eta aurretik esan ohi izan duen bezala, prozedura bat finkatu behar dela "interes bereziko edo udal erabilerako" izaeraren barruan sartzen diren kasuak zehazteko.

#### Maiza and.

Adierazi du gai hau landu zela aurreko Legealdian, eta beharbada gai hau arautu egin behar dela zalantzarik ez izateko.

#### Dubreuil jn.

Ordenantzak %95 bitarteko hobaria ezartzen duela esan du, eta aplikatu beharreko hobarien portzentaiak zehazteko prozedura arautu beharko litzatekeela esan du, obra motaren arabera zehaztuta.

#### Maiza and.

Adierazi du kasu honetan ez dagoela inongo zalantzarik eta %95eko hobaria aplikatu behar dela.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE(PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 10. puntuaren berri eman du.



## 10.- Kreditu tranferentzien 5. Espedientea onartzea.

### Proposamena

Indarrean dagoen 2014ko Aurrekontuan 626.121.00.01 partida dago 10.000 euroko kredituarekin. Partida hau Idazkaritzan egon arren atenditu nahi du Udal osoan emango diren beharrak Informatika arloan.

Urtea aurrera dijoala, errealitatea hori bilakatu da; une honetan hainbat gastu egin dira hainbat ataletan.

Plenoko Gaiaren Batzordea, hile honen 21ean egindako bileran ondoko kreditu aldaketari oneritzia eman zion.

### AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu transferentzi 5. espedientea onartzea, segidako zehaztasunarekin:

2014. URTEA		
<u>KREDITU TRANSFERENTZI 5. ESPEDIENTEA</u>		
KREDITUEN IGOERA		
PARTIDA	IZENA	KOPURUA
626.111.00.01	Informatika tresnak	2.171,95
626.121.00.01	Informatika tresnak	865,15
625.123.00.99	Epaitegirako bulegoko tresnak	330,33
626.313.99.01	Informatika tresnak	450,12
626.432.10.01	Informatika tresnak	3.317,82
626.451.10.01	Informatika tresnak	314,60
		<b>7.449,97</b>
KREDITUEN MURRIZKETA		
PARTIDA	IZENA	KOPURUA
626.121.00.01	Informatika tresnak	<b>7.449,97</b>

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Intsausti and.

Adierazi du kreditu transferentzien 5. Espedientea informatika tresnetan egindako gastu batzuk egokitzeko dela besterik gabe.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE(PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 11. puntuaren berri eman du.

### 11.- Norberak lekarkeena

Ez da izan.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.